

Oier Araolaza

DANTZARIA ♦



INIGO AZKONA

Krisia? Zer krisi?

LAU URTEOTAN askotan akordatu naiz gutun honekin. Orain lau urte krisia bazetorrela entzuten hasiak ginen, baina artean, batez ere entzun. Harrezkero antzeman dugu, bai horixe. Eta ni Monicarekin akordatzen naiz. Zertan eta nola ibiliko ote zen lau urte latz hauetan. Hara zer idatzi zuen orain lau urte:

“Krisia? Zer krisi? Langile asko bezala 17 urte nituenetik ari naiz lanean. Horrek 30 urte egiten ditu lanbidean, eta Gizarte Segurantzaren arabera beste 18 falta zaizkit erretiroa hartzeko. Baina Gizarte Segurantzak ez dakiena da nire gorputza ez dagoela horretarako prest. Ogibideko hogeita hamar urte hauetan makina bat jardueratan aritu naiz. Ume-umetatik dantzaria izan nahi nuen, eta hara zer naizen: ekoizlea, koreografoa, banatzailea, diruzaina, furgoneta gidaria, enkarguen neskatala, informatikaria, irakaslea eta diseinatzaile grafikoa, besteak beste, eta noizean behin, ikasi nuena, dantzaria.

Hau ez da kexa bat, ondo dakit ia inor ez dela aritzen nahiko lukeen horretan, baina, atsegin dudana egiteagatik pribilegiatu bat naizela esaten didan hurrenari belarrondokoa emango diot.

Hau ez da kexa bat, ondo dakit ia inor ez dela aritzen nahiko lukeen horretan baina, atsegin dudana egiteagatik pribilegiatu bat naizela esaten didan hurrenari belarrondokoa emango diot

(Monica Runde)

diren ere jakin gabe eta nire lan ordutegia 24 ordukoa da, astean zazpi egunez. Nire burua esplotatu dut urte askotan amets baten truke. Edozein pertsonaren modukoa naiz, zenbaitetan, nire lan-jardunaren erdian txalotu egiten banaute ere. Bai, nire lanaldiaren erdian, emanaldiaren ondoren gauzak biltzen, furgonetan sartzen, jantziak garbitzen eta abar jarraitzen baitut.

Orain, mundua krisian dagoen honetan, ez naiz hain bakarrik sentitzen. Denek sufritzen dituzte gure prekarietate eta lan etenak, soldata eta katxeen izozteak (guk urteak daramatzagu), edozer gauzatan eta edozein tokitan lan egin beharra, 12 hilabetera kobratzea eta ez hilabete bakoitzaren 30ean, eta enpresario eta pluriempleatua bihurtzea bestela ez daukazulako lanik”.

Sektore baten argazkia da Monicak eskaintzen duena. Runde du abizena Monicak, Monica Runde. Frantzia, Kanada eta Ingalaterran baleta, dantza garaikidea, pianoa, antzerkia, argizatzea eta kultur ekoizpena ikasi eta 10 & 10 dantza konpainia sortu zuen Monica Rundek. 2000. eta 2004. urteetan Espainiako eta Costa Ricako Dantza Sari Nazionalak irabazi zituen. ■



DANI BLANCO



Edu Zelaieta

♦

IDAZLEA

Klasistak ere bai

ESKOLETAN aurre-matrikula egiteko kanpaina bukatu berria da. Jakina da gurasook onena nahi izaten dugula geure seme-alabentzat; hori dela eta, ikastetxe egokiena hautatzea xede dugu halako epe batean. Gurasoen asmo oneko aukeraketa, bistan denez, balore nagusi batzuen arabera egiten da eta, nola ez, seme-alaben geroa presente dugula.

Baloreak praktikan jartzeko ariketan, baina, lumatza ikusten zaigu: egun, ikastetxea hautatzeko baliatzen den irizpide funtzionalerako bat, dena delako ikastetxean zenbat etorkin dauden jakitean datza. Ondorioz, etorkin gutxien dituzten eskolak

gero eta gehiago estimatzen dira bertan jaio garen aita-amon artean.

Haatik, eskola publikoko ikasle etorkinak ez ditugu arrazagatik soilik saihesten; izan ere, etorkina ekonomikoki pobrea den atzerritarra dugu: kanpotik etorritako aberatsari ez deritzogu etorkin. Hortaz, etorkinei izkina egiteko estrategia estatus sozio-ekonomikoari ere badagokio, ohiko sosen aferari; kulturen arteko talkak lotura zuzena baitu sakelen arteko talkarekin. Etxeko hezitzaileok arrazistak ez ezik, klasistak ere bagara. ■

